

Aitor Arregi Ikus-entzunezko Komunikazioko irakasleak bi film aurkeztuko ditu aurtengo Zinemaldian

2014/09/21

Aitor Arregi Mondragon Unibertsitateko Ikus-entzunezko Komunikazioko irakasleak bi film aurkeztuko ditu aurtengo Zinemaldian. Batetik, Arregik zuzendutako *Zarautzen erosi nuen* film laburra, Zabaltegi sailean aurkeztuko da; bestetik, *Loreak* filma Sail Ofizialean lehiatuko da. Jon Garaño eta Jose Mari Goenagaren bigarren film horretan ko-gidoilari eta ekoizle lanak egin ditu Oñatiko irakasleak.

Donostiako 62. Zinemaldiaren Zabaltegi sailean aurkeztuko du Aitor Arregik *Zarautzen erosi nuen* film laburra. Lan hori, aurretik, aukeratua izan zen 2014ko Kimuak bildumarako. Eusko Jaurlaritzak egiten du, urtero, euskarazko film labur onenen aukeraketa hori.

Jon Garaño eta Jose Mari Goenaga *Loreak* filman gidoilari eta produkzio lanean ibili da Aitor Arregi. Aipagarria da, *Loreak* dela Zinemaldiko historian, Sail Ofizialean parte hartuko duten euskaraz filmatutako lehenengo lana. Bi zuzendari horien bigarren lan luzea da aurtengo Zinemaldian lehiatuko dena. *80 egunean* euren estreineko lanak oso harrera ona izan zuen zinema aretoetan.



Aitor Arregi, Aretxabaletako campusean hartutako irudian.



Aitor Arregik gidoigintza, dokumentalgintza eta erre realizazio materialak irakasten ditu Mondragon Unibertsitateko Ikus-entzunezko Komunikazioa graduari, gainera, Moriarti ekoiztetxeko kide da.

Irakasleak ibilbide oparoa du zineman, animazioan eta, oro har, ikus-entzunezkoen munduan. Esaterako, animazioan, 2004an, *Glup* filma eta, 2006an, *Cristobal Molón* luzea ko-zuzendu zituen Iñigo Berasategirekin batera (*Glup* aukeratua izan zen Espainiako 2004ko Goya Sarietarako Animazio Onenen atalean). Bestetik, *Lucio* film luzea zuzendu zuen Jose Mari Goenagarekin batera. Dokumental hori ere izendatuta egon zen Goya sarietan, Dokumental Onenen sailean. Geroago, 2011n, zuzendari berdinarekin, *Lagun mina* film laburraren gidoia egin zuen Arregik (besteak beste, film labur onenen saria irabazi zuen lan horrek Creat Rivas jaialdian). Gainera, 2013an, *Arrieta Metodoa* filman produkzio lanak egin zituen irakasleak. Iaz, azkenik, *Azken egunak Gurian* izeneko dokumentala zuzendu zuen oñatiarrak.

- *Zarautzen erosi nuen* filmaren harira, Aitor Arregiri egindako elkarrizketa Berria egunkaria.